

Zuzenbide penala XXI. mendean; nora goaz?

Jon Mirena Landa

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen EHUko Unesco katedraren zuzendaria

Egun ezagutzen dugun zuzenbide penalaren oinarriak XVIII. mendean jarri ziren, Frantziako Iraultzarekin batera etorri zen aro berriaren eskutik. Erljiioaren autoritatearen ordez, pentsatzeko gaitasunak bere lekua hartuko zuen, zientzia *modernoaren* bitartez mundu berri eta hobea gabe egiteko gauza ginela. Ilustrazioaren garaian baikortasuna zen nagusi: gizabanako modernoak *dena* ahal zuen. Kant filosofoak ezagun egingo zuen esamoldeari helduta: «*Sapere audere*, ausartu (zure kabuz) pentsatzen!» Aldi berean Erdi Aroko gizarte estamentalak desagertzeko bidean zegoen. Burgesiak, klase emergente berriak, nobleen gainetik pasako zuen, kapitalismoarentzat ezinbestekoak ziren molde berriak sortuz.

Molde berrien artean, sistema penala erabat aldatzeko zorian zegoen. Erdi Aroan izuaren, gehiegikeriaren eta krudelkeriaren zuzenbide penala genuen. Delitu gehienek aurrean heriotza- zigorra ezartzen zen, sufrimenduz beterik, zigor fisikoekin batera, tortura lagun, bai zigorra beteazteko, bai prozedura penalaren barruan ere *egia* lortzeko.

Odolez beteriko zuzenbide penalak goia jo zuen, ordea, Ilustrazioaren aldi berrien zurrumbilaoan. Askotan, delitugilea, haimbeste sufrimendu eta basakeriapean zigortua izan ondoren, begi onez eta errukiz ikusia izaten zen jendearen aldetik, borroko-estatu basatiak, aitzitik, bere legitimitate guztia galtzen zuen bitartean: nor zen txarragoa, estatu odolzale eta errukigabea ala delitugilea bera? Gainera, zuzenbide penal zaharra ez zen efikaza, eta ugaritzen hasi ziren goitik beherako aldaketak eskatzen zuten ahotsak.

Ahotsen artean bat bereziki ozenki entzun ahal izan zen, Beccaria Markesarena. Izan ere Beccariari esker, gero 200 urteen bilakaeran, bi uhin zibilizatzaila eta gizatiar martxan jarriko ziren. Lehenengoan, heriotza- zigorra, tratu txarrak eta torturak desagertzen hasi ziren, eta, horien guztien ordez,

presondegia azaldu zen zigor nagusi gisa. Bigarrenengoan, geroago, presondegia bera mugatu behar zela defendatzen hasi zen, presondegia on-dorio txarrak indargabetzeari begira. Azken uhin horrek XX. mendera arte iraun zuen, eta, horri esker, presondegia erabiltzeari utzi zitzaion delitu arinetan, aldi berean presondegien baldintza material hobeen aldeko borroka indartzen zen bitartean.

XX. mendearen bigarren zatian eta gaur arte, gauzak aldatzen hasi ziren. Egun, jarauntsitako sistema penala dago auzitan: gizatasun printzipioa ez da kontuan hartzen. Areago, horren aurka urrats sendoak egiten ari dira; nabarmenena, behin betiko zigorra (presoaldi iraunkor berrikusgarria, alegia).

Gizatasun printzipioa soil-soilik ez dago auzitan: birgizarteratze printzipioa ere edukiz eta formaz ukatua

suertatzen da. Kasu horretan, legezko aldaketak ez dira modu argian egiten, baina, pixkanaka, zigorrak betetzeko modua gogortzen ari da, kondenuatutako presoak gero eta denbora gehiago kartzela barruan kanpoko inongo kontakturik gabe pasa dezan: hau da, baimenak, hirugarren gradua, baldintzapeko askatasuna lortzeko baldintzak gero eta gogorragoak dira, eta gero eta interpretazio murriztaileagoak egiten dira zigor oso-oso barruan bete izan dadin.

Ultima ratio printzipioa ere auzitan dago: hots, ez da sinesten zuzenbide penala azkeneko tresna gisa erabili behar denik beste erremediorik ez dagoenean. Begi bistan dago: gero eta zuzenbide penal gehiago dago (debeku penal gehiago), gero eta gehiago eskatzen da zuzenbide penala (gehiago debekatzeko eskakizuna gorantz), eta gero eta gogorrago ari gara dena zigortzen. Nora goaz?

Etorkizuna? Ilustrazioaren aldean, gaur ezkortasuna da nagusi. Eta horren aurrean lehenesten den irtenbidea *indarkeria instituzionalarena* da. Politika kriminalaren alde egitearen poderioz, gizarte politiketan, aitzitik, atzerantz ari gara. Bata eta bestea ez dira *gehiketa zero* izeneko jokoaren araberakoak, halaber. Areago: politika kriminala indartzuz gero, arazo sozialak areagotuko dira, eta, orduan, gizarte politikari heldu ezean, nola konponduko ditugu arazoak? Alemanian, eta han delitugintza gogorra da oso, presoaldi gutxitan erabiltzen da: delitu gehienak epai suspentituaren, isunen eta gizartearen aldeko lanen bitartez konpontzen dira, eta delitu larri gutxi batzuek baino ez dakarte benetako kartzelazterik. Gizarte politika eta politika kriminala modu egokian konbinatuz gero, baina baita ere operadoreen kultura juridikoa sendoari esker, zigorrak eta zuzenbide penalaren filosofia ilustratua tinko dago oraindik, eragingarritasun maila egoki batez.

Gure kasuan, zoritxarrez, beste norabide bat hartzen ari gara: Estatu Batuetakoranzkoa, alegia. Baina horrek ez du mugarik: laster ematen du behin betiko zigorra *gutxi* izango dela, eta, orduan, zein izango da hurrengo urratsa? Gizarte bezala, ordea, jakin behar genuke erantzun penal *justua* zein den, kontu sinboliko-kulturala dela, eta erantzuteko moduan ere gure kultura islatzen dela. Zein kultura nahi dugu? Erdi Arokoa?

Politika kriminala indartzuz gero, arazo sozialak areagotuko dira, eta, orduan, gizarte politikari heldu ezean, nola konponduko ditugu arazoak?

Askotan esan izan da Zuzenbidea hizkuntza bihurri, ulertezin eta teknikoak baliatzen dela herri xehe profanotik aldentzeko, bere jarrera gotortzeko, laborria sorrarazteko. «Nik horretaz ez dut ulertzen» baino esaldi gozoagorik ez dago ahaltsuaren belarrientzat; «ez dut saltetan sartu nahi!».



JIRA
Angel Erro

Aspaldidanik diru kontuak ere saltza edo nahaspila bihurtu dira. Dirutzak irabaztearekin amestu arren, bitan pentsatuta erraza da sumatzea zelako mordoiloan sartuko ginen. Badago Ekonomia eta Enpresa Administra-

ziona ikasten duenik gurasoengandik negozio handi, ertain edo, are, txikia oinordetzan jasotzeko aukerarik gabe? Pobre jendeak bere diru kontu txikien kudeaketari beldurra hartzea nahi dute. Aita dardarka hasten da bankura joan behar duenean. Gutun bat jaso zuen, aurrez aurre kudeaketak egiteko ordutegia goizeko 8:00etatik 10:00etara mugatuko zela esanez. Gainontzekoak kutzazain automatikoan edo *online*. Ustez teknofilikoa naizen honek goiz osoa daramat (horregatik zutabe honen presakako jitea) udal batetik ehun euro kobratzeko, agiri digital gora eta faktura elektronikoa behera, honetaz ulertzen ez dudala eta saltsetan berriz sartuko ez naizela esateko puntuan.

Xahutzeko bideak aise intuitiboak dira. Besteak, berriz...

Inuzenteak

Gaur Inozente eguna da. Normalean irakurtzen ditugun egunkarietan gezurra zein den identifikatzen saiatuko gara. Telebista eta irrati azti jarraituko ditugu, ea gezurra zein izango ote den. Kalean gelditzen gaituen oro susmagarri egingo zaigu. Ez dugu edozein galdera edozelan erantzungo. Inork esaten badigu hirugarren



BIRA
Onintza Enbeita

persona bati deitzeko edo haren bila joateko, ziurtatu egingo dugu hala eskatu duela norbait horrek. Badaezpada, tarteka, eskua bizkarrera botako dugu ea ezer itsatsi diguten jakiteko. Eta etengabe esango diogu

geure buruari aurten ezetz; aurten ez digutela ziririk sartuko.

Eta urte guztian gaur bezain azti ibiliko bagina? Urte guztian esaten dizkigute gezurrak prentsan, irrati eta telebistan. Gu ez gara konaturaten, baina etengabe ari zaizkigu bizkarrean berez ez dagokigun motxila bat itsatsen: dela zaintza, dela maitasuna, dela zilkina ez izateko modu bakarrean egin behar den sexua... etengabe egiten ditugu norbaitek eskatutako gauzak beste batzuentzat. Eta ez diogu geure buruari airtortzen zirria sartu digutenik. Baina sartzen digute; bai ederto sartu ere! Beraz, urte guztian ibili behar genuke gaur bezain azti, gaur bezain gezur harrapatzaile. Gaurkoak gezur strafalariorak dira; besteek modu konkretu batean bizitzera kondenatzen gaituzte.